

Leioa, 2013ko irailaren 23a.

ARRISKU PSIKOSOZIALEN EBALUAZIOA: PREBENTZIO ZIRKULUAK ERATZEA

Ekainaren 28an iragarki tauletan arrisku psikosozialen ebaluaziorako lantaldearen zirkular bat argitaratu zen eta bertan esaten zen lantaldeak hiru prebentzio zirkulu antolatzea erabaki zuela (desberdinak AZPko langileentzat eta irakasle eta ikertzaileentzat) UPV/EHUen okerren dauden arloak aztertu eta horietarako prebentzio neurriak proposatzeko. Arlo horiek ondorengo hauek dira:

.- **Lanaldi bikoitza:** unibertsitateko lanari, eta, aldi berean, familia erantzukizunari aurre egin behar izateari dagokio.

.- **Lidergoaren kalitatea, aurreikusgarritasuna eta rol gatazka:** lana egiteko beharrezkoa den informazio guztia izatea da aurreikusgarritasuna. Horri gehitu beharrekoak dira giza taldeak kudeatzerakoan ikusi den lidergoaren kalitate eskasa eta rol gatazka, lanean sortzen diren eskakizun kontrajarriekin lotutakoa.

.- **Eskakizun psikologikoak eta etorkizunari buruzko segurtasun falta:** laneko eskakizun kuantitatibo, emozional eta kognitiboekin lotuta daude, baita lana galdu ahal izateak sortutako ardurarekin eta norberak nahi izan gabe lan baldintzak aldatzearekin ere.

Horretarako, zirkulu horietan parte hartu nahi dutenek, gaurtik hasita, irailaren 30era arteko epea dute beren datuak posta elektronikoz honako helbide hauetakoren batera bidaltzeko: riesgospsicosociales@ehu.es edo arriskupsikosozialak@ehu.es. Bidali behar diren datuak honako hauek dira:

Izena	Abizenak	Tel. luz.:	AZP/Irakasleak eta ikertzaileak	Ikastegia	Posta elektronikoa:	Aukeratutako zirkulua
-------	----------	------------	---------------------------------	-----------	---------------------	-----------------------

Epe hori bukatutakoan interesdun bakoitzari jakinaraziko zaio zirkuluak eratu direla eta horietako zeinetan parte hartuko duen, baita noiz eta non ere. Eskerak plazak baino gehiago badira, lantaldeak aukeraketa bat egingo du kontuan hartuta inkestan emaitzarik txarrenak izan dituzten faktoreak (adina, lantokia, lan harremana, antzintasuna eta generoa).

Zirkuluak urriko lehenengo astean eratuko dira eta urriaren 15ean aurkezpen eta prestakuntza jardunaldi bat antolatuko da. Zirkulu horiek azaroan bilduko dira, lanorduetan, bi orduko 3 edo 4 saiotan. Joan-etorrietan ez ibiltzeko, bilerak bideokonferentzia bidez egingo dira beharrezko izanez gero.

Informazio zabalagoa nahi izanez gero, UPV/EHUren webgunean duzu eskuragarri (Prebentzio Zerbitzua) edo posta elektronikoz jo dezakezu lantaldearengana (riesgospsicosociales@ehu.es edo arriskupsikosozialak@ehu.es) zure intereseko alderdiez galdetzeko.

Eskerrik asko. Ondo izan.

Arrisku Psikosozialen Ebaluaziorako Lantaldea

LAN INGURUNE OSASUNGARRIA IZAN DEZAGUN, PARTE HARTU!